

## **Eider Rodriguez, Foru Liburutegiko irakurketa txokoko protagonista**

Ekimen hau otsailean hasi zen eta azaroan amaituko da; Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura antolatzen ditu saioak, hilean behin, gaztelaniaz eta euskaraz, txandaka.

Irakurle talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentsazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoia duten pertsonak biltzen dira. Idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da. Egileek beren azken lana komentatuko dute edo idatzi edo irakurri dituztenen artean gogokoena, eta entzuleak beren gogoeten partaide egingo dituzte.

Urrian, Maria Maikurrena eta Eli Tolaretxipi poetak izango dira protagonistak. Zikloa azaroan amaituko da, Bernardo Atxaga idazle ospetsuarekin.

Orain arte, José Fernández de la Sota, Yurre Ugarte, Luisa Etxenike, Anjel Lertxundi eta Francisco Javier Irazoki bertaratu dira literatura hitzordura.

### **EIDER RODRIGUEZEN BIOGRAFIA**

Errenterian, 1979an jaio zen. Kazetaria, editorea, itzultzailea eta gidoilaria da. Orain arte Eta handik gutxira gaur (Susa, 2004) argitaratu du [Y poco después ahora. Ttarttalo, 2007]. Haragia (Susa, 2007) da bere bigarren liburua, eta Carne autoreak berak egindako gaztelaniazko bertsioa. Gaur egun Hendaian bizi da.